



BOLIVIA

PROIEKTUA



"ESKU-HARTZE SOZIALA"

Udalerria: **TRINIDAD**

Departamendua: **BENI**

**BIZTANLERIA**

106.596



**MUGAK**

- Mamore ibaia
- San Javier
- Marban/Moxos

**AZALERA**

35 km<sup>2</sup>



# TRINIDAD - BOLIVIA

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektu hau 6 zentrotan garatzen da, eta horietan hezkuntza-laguntza, formazio tailerrak, ebanjelizazioa, osasuna eta higiena, aisialdia eta kirola eskaintzen dira:

1-Mocovi Espetxea: gizonezkoentzat.

2-Mana Zentroa: nerabe arau-hausleentzat.

3-Chetequije Zentroa: gizarte-arazoak dituzten haurrei, arau-hausleei, eta ezgaitasun ezberdinak dituztenei harrera eskaintzeko.

4-Esperanza Zentroa: indarkeria motaren bat jasan duten, arau hausleak diren eta ezgaitasunak dituzten neskei harrera eskaintzeko.

5.-Emakumeen espetxea: 15-20 emakume egon ohi dira.

6.-Cabildo Indigenal: La Sallek sortutako hezkuntza zentroa.

## PROIEKTUAREN KOKAPENA

Proiektua Trinidad hirian kokatzen da. Trinidad, Boliviako hiri bat da, Beni departamenduko eta Cercado probintziako hiriburua. Hiriak 35 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 106.596 biztanle, departamenduan populazio handiena duen udalerria da.

Udalerriaren erliebeari erreparatuz gero, lava dela esan daiteke nahiz eta inklinazio apur bat duen. Hau honela izanik, urtaroaren arabera, uholdeak eta euriteetako uren geldialdiak sortzen dira.

Trinidad, Boliviako gobernuaren egoitza den La Paz hiritik 500 km ingurura dago. Gertuen duen hiria Santa Cruz de la Sierra da. 160 metroko altueran dago eta Mamore ibaia hiritik 13 km mendebaldera aurkitzen da.

Iparraldean San Javier udalerriarekin egiten du muga, ekialdean eta hegoaldean Marban probintziarekin eta mendebaldean Moxos probintziarekin.

Klima bero eta heze tropikala du; euria abenduan eta apirilean egiten du batez ere.

## PARTAIDE KOPURUA

4-5 Pertsona



## PARTE-HARTZE EREMUAK

1. Eskolako eta aisialdiko hainbat ekintzetan laguntzea.
2. Eskola-laguntza.
3. Formazio-ekintzak espetxera-tuekin.
4. Hezkuntza eta motibazio tailerrak, emakumeentzako tailerrak, haurrentzako jolas-jarduerak...



## BOLUNTARIOAREN PROFILA

Boluntarioak arlo sozialarekin erlazionatutako formazioa edukitzea garrantzitsua da. Bestetik, pertsona dinamikoa, pazientziaduna eta enpatikoa izan behar du. Laguntzeko borondatez, baliozkoak izango zaizkio bestelako bertuteak ere.



## BOLUNTARIOEN OSTATUA

Boluntarioek La Salleko Anaien etxebizitzan izango dute ostatu. Etxebizitza hori La Salle Trinidad ikastetxean dago, hirian bertan.

Etxebizitza, Mocoviko espetxetik eta Mana nerabe arau-hausleen zentrotik 6 km-ra dago. Esperanza eta Chetequije zentroak 2,5 km-ra daude, eta azkenik, 3 km-ra Cabildo Indigenal eta Emakumeen kartzela daude.





